


«UN FUTURO PARA NUESTRO
PASADO», GOGOETA
SOZIOLINGUISTIKO BATZUTARAKO
ITURRI

Ezetz asmatu
Zer ikas dezakegu hizkuntz ikasle
onarengandik?
Irakurtzeko zaletasuna suspertzen
Gramatikaren inguruan

VI URTEA
18. zenb.
1988 IRAILA-ABENDUA
700 pzta.



euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

ZUTABE

Zuzendaritza: Iñaki ARANBERRI
Pello ESNAL
Imanol IRIZAR
Gurutz LARRAÑAGA
Boni URKIZU


Koordinatzailea: Joanba BERGARA

Idazkaritza-Harpidetzak: HABE
ZUTABE aldizkaria
Reina Regente, 2-1 -a
20003 DONOSTIA-Tel.: (943) 29 18 11

1988rako prezioak: Ale bakoitza: 700 pzta.
Harpidetza: 1.500 pzta.

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra, HABE

ZUTABE



AURKIBIDEA

GAI MONOGRAFIKOA

- Txepetxek puntua jarrita: «Un futuro para nuestro pasado», gogoeta sozio-linguistiko batzutarako iturri (Joxe Manuel Odriozola)..... 11

ESPERIENTZIAK

- Ezetz asmatu (Miren Gurutze Arrieta)..... 43
- Diaporamagintza mintza aitzakia (Pello Joxe Aranburu) 54
- Hizkuntz edukiak eta idazmena (Jon Mendizabal) 58

EUSKARA AZTERGAI

- Euskararen doinua (Miren Gurutze Arrieta) 77
- Ahozko literatura ahotik ahora (Xabier Huizi)..... 80
- Obabakoak (Pello Esnal)..... 84
- Esamolde jatorrak (Boni Urkizu)..... 89

IRUDIBIDEZ

- Gaixoa! (Joanba Bergara)..... 94

ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

- Zer ikas dezakegu hizkuntz ikasle onarengandik? (H. H. Stern) 99
- Ingeles mintzatua ebaluatzen. Lehen urratsak (Tim Hayward)..... 111
- Lotura bikoitzaren teoria eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren porrota (Maria Jesus Espi)..... 118
- Irakurtzeko zaletasuna suspertzen (Joanba Bergara) 122
- Ikasleak mintzo (Joxe Mari Erzibengoa)..... 127

IRITZIAK

- Gramatikaren inguruan (Zutabe)..... 137

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

- Gardner, R. C.; Lambert, W. E.: Attitudes and motivation in second language learning (J. Perales) 151
- García Solano, R.: Las regletas de colores. Los cuerpos lógicos (J. Bergara) . 152
- McRae, J.: Using drama in the classroom (A. Maiz)..... 152

AURKIBIDEAK

- Egileka 157
- Gaika 158

SARRERA

Eskuan duzun ale honekin iritsi gara urtearen azken txanpara.

Txepetxen Un futuro para nuestro pasado zutarri ahantzezin bihurtu zaigu euskararen soziolinguistikan. Hori dela medio, ZUTABEk bere «monografia» ataleko ateak soziolinguistikari zabaldu dizkio, oraingoan Joxe Manuel Odriozolaren eskutik datorkigun lanari. Bertan, Txepetxen liburuan oin harturik, Odriozolak bere gogoeta kritikoak eskaintzen dizkigu.

«Aurrerapen-trenak, inoiz mantxoago inoiz bizkorrago, batzutan ezarian-ezarian bestetan modurik bortitzenean, euskal lurrak etengabe zulatu ditu azken mendeetan. Noiztik? Ez behintzat Estatu kapitalistaren arotzat soilik joko genukeen horretatik hona. Halarik ere, aro horixe da Estaturik gabeko herrien galbide kulturala eta linguistikoa behin betirako ekarri duena.» —dio Odriozolak. Txepetxen liburua prozesu kora-pilotsuen mekanismoak azaltzeko eta soluziobideak eskaintzeko baliabide edo lantresna ezin hobea gerta dakiguke. Monografiko trinkoa, gai hauetara jarrita ez dagoenaren-tzat agian zenbait unetan astiro irakurtzekoa.

«Esperientziak» sailean hiru lan bildu ditugu. Deklinabideko kasuak lantzeko «Ezetz asmatu» joko pedagogikoa lehenengoa. Bigarrenak euskara-ikastalde batek diaporamagintzako alorrean buruturiko esperientzia baten berri dakarkigu. Eta azken lana EGA mailan lau trebetasunak, hizkuntz edukiak eta gaiak elkarrekin integratzeko proposamena da.

Lau lanek osatzen dute «Euskara aztergai» saila. Gurutze Arrietak euskararen irakaskuntzan doinuari jarri behar zaion arretaz dihardu. Huizik, bere aldetik, ahozko literatura du aztergai. Esnalek Obabakoak liburu irakurgarria ikastresna zoragarri izan dezakegula gogorarazten digu. Azkenik, Urkizuk zenbait esamolde jator aurkezten du.

«Irudibidez» sailak oraingoan inputaren zer-nolakoa aztertzen du.

Bost artikulua aurkitzen ditugu «Itzulpenak eta lankidetzak» sailean. Stern-ek hizkuntz ikasle onaren ezaugarriak ikertzeari ekiten dio. Hayward-ek hizkuntza mintzatuaaren ebaluazioan aintzakotzat hartu beharreko zenbait gorabehera aipatzen digu. Espri-k bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren porrota aztertzen du. Bergarak irakurtzeko zaletasuna suspertzeko bi baliabide eskaintzen ditu. Azkenik, Erzibengoak prozesu pedagogikoa sustraitzeko modu bat, inkesta alegia.

«Iritziak» sailak euskara-irakasleek gramatikarekiko dituzten erizpideak ikusteko parada ematen du.

Alea ixteko, zenbait libururen aipamena egiten dugu. Eta, urteko azken alea denez, azken hiru aleetako aurkibideak eskaintzen ditugu, egileka eta gaika.

Besterik ez. ZUTABEk Eguberri eta Urteberri on opa dizu.